



Hankak eta bizikleta, ibilgailu osasungarriak eta eraginkorrak izan ezezik onuragarrienak ere badira ikuspuntu ekonomiko batetik eta ingurunearen babesaren aldetik.

Hori dela eta, bizikleta hiriguneetan mugitzeko aukerarik sendoenetako batean bihurtu da gaur gaurkoz, eta horrela pentsatzen dute europarren %73ek zeintzuk bizikleta kotxerearen aldean lehentasunezko tratua izan beharko lukeela pentsatzen duten.

Izan ere, European kotxez egiten diren desplazamenduen erdiek, 5Km baino gutxiago dute (ordu erdi bat baino gutxiago bizikletan). Beraz, benetako aukera baten aurrean gaude herrietan bertan edo (zenbait kasutan) herrien artean mugitzeko eta batzuetan, oso aukera erabilgarria izan daiteke garraio publikoarekin konbinatuta.

Bestalde ukaezinak dira osasunarengan bizikletaren praktikak dituen onurak.

Hala eta guztiz ere, bukatu gabeko Bidegorri-sareak, dagoeneko existitzen iren bidegorrien erabilera okerrak eta mantenu faltak ozotoputzen dute bizikletaren erabilera Lasarte-Orian.

Horregatik guztiagatik, EAJ udal taldeak udalbatzar honek ondorengo erabakiak hartu ditzala proposatzen du:

- Ingurunean eta osasunean dituen abantailengatik, aisia eta garraiorako bitarteko bezala bizikletak duen onura publikoa aitortzea.
- Eremu publikoak bizikletaren trafikora egokitzeko neurriak hartzeko eta onartzeko beharra kontsideratzea eta aintzat hartzea, bidegorrietatik segurtasunarekin eta modu eroso batean ibiltzeko herritarrok dugun eskubideak bermatu ahal izateko. Neurri horiek, seinaleztapen egoki bat, eremu publikoarentzako diseinu arauak, eta beharrezkoa denean, txirindulariei zuzendutako espazio bereizi bat erreserbatzea ere jaso beharko lukete.
- Neurri horiek, garraiorako udal eta bailara planetan, Arau Subsidiarioetan eta Udal Agenda 21ean jasotzea.